

Euskal bertsolarien jakortasuna

Bertsolarien gañian amaika uste ta iritxi oker entzun izan dituguz. Ba-dira poetekin konparatzen dituenak ta baita kirtenkeriak dirala esaten dabienak pe. Baña, ez bata ta ez beste, ta gauzak aspikuaz-gañera ipiñi barik, bertsolarieri euren toki egoki bat emongo detsegu.

Bertsolariak, aintzinako Grezia'n izaten ziran **rapsođen** antzerakuak dira; bakarrik, arek, ikasitako bertsuak kantatzen ebezen ta gure onek kantauala asmatzen dituez. Baña ez kirtenkeriak esatako, ziriak sartzeko ta poesia kutsuz kantatzeko baño. Gañera, kirtenkeriak kantuz esateko albidadia daukana be ezta gutxi. Ba-dakigu zaliak dirana erderazko berbak erabiltzen; laster erantzun biarrik ta rima ta neurria ondo erabilli biarrik euskeran kontu asko ipiñi barik jardun eraitzen detse. Bakarrik, euskera kontuetan, guztiok usten dogu jakintsuak garaia, naiz ta ezer eustudiatu ez. Donostia'ko Bartolo'neko taberna tablero bat dauke, nai dabena, bertsuak bertan eskribitzeko eta ara cin dala denpora gutxi zer ipintzen zeban:

Ezagutzen ditut nik
amaika itzontzi,
euskeraz dakite baña,
erderaz nagusi;
euskotar asko dira
gai ontan itxusi,
euskeraz maite, baña,
bat'erez ikasi.

Ori da guk dogunik kalamidaderik aundia. Bertsolariak ez-ikasiak dirala? Erdera izango da ikasi ez dabiena, ze, euskeran baintzat ez dago eureri ur emotekorik. Euskeria be, munduko izkuntza guztien moduan, berba eiteko da eta arte orretan ez dago bertsolarien añakorik. Orretxegaitik Xenpelar batek Iparragirre'ri bota zetsazen onek bertsuok:

Iparragirre abilla dala
askori diot aditzen...
Eskola ona eta musika,
ori oiekin zerbitzen.
Ni ezazu ibiltzen
kantuz dirua biltzen,
komediante moduan;
debalde pesta preparatzen det
gogua dedan orduan.
Eskola ona eta musika,
bertsolaria gañera...
gu ere zerbait izango gera
ola ornitzen ba-gera.
Atoz gure kalera
baserriar legera
musika oiek utzita;
Errenderia'n bizi naiz eta
egin zaidazu bizita.

Iparragirre'k ez eban jaso desakixu ori, bada ez-pada be.

Bertsolaria izateko, lelengo berezko etorria biar da, ta gero ekin eta ekin arte askoren puruan. Ezta bakarrik musika baten neurrian zerbait esatia; zerbait ondo esatia baño. Konkursuetan, bertsolarieri, sekulako pruebak eraitzen detse, eta puntua ondo eruatetik gañera edertasuna biar dau. Ara Basarri batek zelako edertasunakin kantatzen dituan Eibar'en gorazarriak:

Lanaren bidez jarri zerate
goieneko gallurrean,
zuen izena ezaguna da
gure Europa zarrean.
Arkantz artetik urten dezute
orrelako indarrean,
txapela kendu bearra dago
gaur Eibar baten aurrean.

Bizka'ko bertsolarien txapelketan (konkursuan), Markiña'n, Azpillaga berriatutarrari preguntau zetsenian:

Zer egingo zenduke
txoria ba-zifia?

Azpillaga'k
erantzuna: Laster egingo neuke

egaztaka fiña,
mundu guztia ikusten
egin alegiña;
gura izanagaitik
ezin joan baiña.

Euskera ederra ta poesiaz beteriko bertsuak egiten Pello Mari Otaño izan da mai-xua, bere «Aitona Gizagaixo» ko bertsu batzuek emongo doguz, zelakua zan ikusteko:

Iruditzen zait gaur oraindikan
bera ikusten naguela,
arri tontortxo baten gañian
exerita daguela;
belaun nekatu bien tartean
urriz-makil bat duela,
beraren puntan ipiñirik len
buruan zuen txapela,
bi eskuekin gogor elduaz,
kontu egiñaz onela,
eta okotza oien gañean
lotan ba-lego bezela.
Nola jostatzen pil-pil zebillen
ego-aizetxo epela,
buruko ule zuri bakanak
egara zijoazela
esan zeikian, uste det berak
nahaituzten etzuela.
Antxe nenguan, bere onduan,
zer egin ez nekicla,
laguntzarik nai zuen galdetu
edo aldegin bestela;
itz egin zuen, eta kezkatik
atera nintzan berela.
Arnas lodi bat irten zitzaion
bular esturik jasua,
ta lenbiziko au esan zuen:
—Nere euskera gaixua!

Bertso gutxi egongo dira ain ederki deskribituak. Baña, bertsu ederrak aitatzen asi garanez, ezin dogu laga emen aiatu barik ainbeste bertso ederrin jabe dan Elizanburu lapurditarra; bere «Besta biharamuna», «Orixe»n iritxiz euskal bertsu sailik onena da, ta guk pe ez genduke ezetzik esango. Onek bertsuok, lenago Eibar'en San Juan bixamonian kantatzen ei ziran, zarrak diñenez. Ze, bein, eibartar zar bati aintzinako kantak jasotzen nintzala Elizanburu'en «Besta biharamuna» be kantau zestan Eibar'ko kantu zar bat zala esanaz; ta arri-garriena zan Eibar'ko euskeran kantatzen zituala. Ortik ikusi geinke, Euskalerrian bertsuak daben indarra, ta zelan zabaltzen diran. «Besta biharamuna» ren bertsu guztiak luzeegiak dira emen ipintzeko, ta lelunga bakarrik jarriko dogu baña ez eibartarrez, Elizanburu'k berak ein-dako moduan baño, berba gatxeri parenthesis bat ipiñiko detsegu eibartarrok aitze alde:

Iragan (pasau) besta biharamunian,

Berek dakiten xoko batian,

Lau andre: hiru mutxurdin (neska-zar),

bat alarguna, jarririk itzalkan, (kerizan),

Harri xabal bat helhaunen gainian

Hari ziren (diardue), hari ziren trukian.

Makiñatxo bat zar gogoratuko da bertsu onekin. Izan be, Elizanburu'n bertsuak ederrak eta graziaz betiak diraz.

Zelebrekeriak erabiltzen be, ezira txarrenak, gure bertsolariak, baña orrek pe beti musika neurriaren zentzunari lotuta. Fernando Amezketarra, puntarengua ez-pazan be, bertsolaria genduan. Bein, bertsolarien batzar batian, Naparrua'ko Ametzar'ri bota ei zetsazen bere batzuek zirrikatze alde, eta bestiak ez ei eban onera artu ta erantzuna be olakua izan ei zan:

Ametzar'k: Fernando'k nere onna
ezin eraman txarra...
atzean gelditzeke
ni ez naiz mantzarra.

Zuri egiten dizute
iseka ta farra,
ekarri dezulako
alkondara txarra.

Esan biar ba-zetsan, esan zetsan; ganau onakin sartu zan. Fernando'k ez eukan atzeko otsik. Ara Fernando'n erantzuna:

Prenda artzen dirazu,
alkondararena;
bai dakit ez cedala
emen dan onena.
Txarra izanagaitik
au da neronena:
zuk ederre daukazu
bañan besterena.

Xenpelar be, olan asten zanian, ez zan auntzan gaberdiko etzula. Ara, bein, zelako bertsuak cin zetsazen aberastu barri zan tabernari bati:

Kontzientzia garbia
ote dadukak jarria?
Gizonarentzat onra txarra dek
lapurreria.
Zurrupatuaz erria
egin dek etxe berria...
Ez ondo bete izan ba-uken
sagardez neurria.

Gaur be ez datoz gaizki zenbat tabernarientzat.

Orrez gañera kontuan izan biar dogu, bertsolari bat plazara uttetzen darian, txapelketa darian baintzat, bere txandia allegau arte ez dabela jakitzen ez zer kantau biar daben eta ez ze musikakin; musika ta gaia, aintxe bertan juraukuak ipintzen dituez.

Neurririk gatxena bedratzi puntukua izaten da, geien bat pe, luzia dalako; an probatzen ei dira bertsolari onak. Ejenplutzat bedratzi puntuko bertsuon gertaera bat ipiñiko dogu: Oyartzun'go plazan ei zan, ain justu be, bedratzi bertsolari batu ei ziran, Xenpelar ta Larraburu, euren denporan onenengua, buru zirala. Xenpelar asi ei zan guztieri agurra eñaz:

Xenpelar: PANDERIA'ko onek
memoria erne;
LEXOTT'k jartzen digu
zerbait umore;
txarrik ezin bota du
IBARRE'k naitere;
—nik oiekin ezin det
luzitu batera—;
XORROLA dotore;
baita BORDONDO're;
ARDOTX pare gabe;
AROTZ kantore...
LARRABURU jartzen det
gobernadore

Bai ete dago modurik, lelengo bertsu ori baño laburrago guztien presentazio bat orrela egiteko? Ezta erreza. Ta gañera, esan biar guztiak ain egoki eruanda bedratzi punturen barruan. Meritu gutxi daukala pentsatzen dabena, artu deiala lapitza ta papela ta egun guztian jardunian ia asmau al dituan orrek añako bertsuak; nik ezetz uste, Ba, euki gogoan, bertsolariak, plazara urten eta beste barik egiteko gauza dirala.

Baña, ezta ori guztia, bertsolarien politenetakoa; galdera (pregunte) gatx bat egitia da, guk bertsozik ein barik zelan erantzun jakingo ez gendukian pregunte bat, ta arek bertsoz erantzungo dabena. Ta ori eiteko gauza eztan bertsolaria, ezta ganorazko bertsolaria.

Bein, Gernika'ko Euskal Jai batzuetan, Txirrita'ri galdetu ei zetsen:

Zergaitik ote dago igartuta
Gernika'ko arbola zarra?

Txirrita'k: Zatorren batek jan diolako
azpikaldeko zuztarra,
ta beste animali txar askok
bere gañeko azala;

(Pasa a la pág. 11).

ta Agirre'ri ori ez jakon falta izan, eta egin ebana apalki-apalki ein eban.

«Tentativa» de reconstrucción de nuestro lenguaje natural y el problema de la palabría izenakin liburu bat argitaratu eban 1898'an, Eibar'ko Pedro Oruc'ren inprentan, bere estudio ta teoriaren gaian. An ezal-tzen diran biarrik geienak, lenago, José de Guisasaola izenakin, «Euskal-Erriak errebitan (1882-1887'an) argitaratuak izan ziran. Euretariako biarrik egokienak: «etasun» ta «keri» sufijuen gaian eskribidutakuak, «Cartas Lingüísticas», «Psicología infantil» eta abar, dira. Bere teoriarik geienak oin baziartuak dira; esan doten moduan, filolo-gia biarrik ez zituan ontzat artu.

Unamuno'kin lagun aundia ei zan, ta «don Miguel»ek bere liburuak ezautu ebanian, ara zer esan zetan: «Su libro es a la lingüística actual, lo que la astrología de antaño fué a la astronomía de hoy. Lástima de ingenio malamente empleado». Orri-tioak dana ez zan alperrikakua. Agirre'k sarri esan ebana zan berbia ta pentamentua al-karri lotuak zirala, anima gorputzari be-zela. Geruago Unamuno berak sarri aitatu izan dau bere filosofiko ensayuetan: pen-tzamenak izketiari zor detsaguzela, berbekin pentsatzen dalako. Ta ori, gure Agirre'k, Unamuno'k zapuztutako liburuan garbi asko esaten eban.

Azkenengo gerratian, Agirretarren etxia erre ez ba-litz, bere liburu negi ederra ta Europa guztiko filologuekin euki zituan artu-emoneko kartak salbauko ziran, baña zorigaitoz, dana erre zan.

Ezautzen ditugun biar guztiak erderaz date. Berak pe izan zituan Mogel'en antze-rako ardurak gure euskera zarran alde, bere biarretan sarri esaten dau: «Nuestra nativa pero poco cultivada lengua»; baña penaga-rria izan zan Mogel'en bidia ez jarraitzea; teoriak gañezka daukagu euskera, baña eus-keraz eskribituzian faltaz. Ta ez berak ondo ez-ekialako, ba, garbi ikusten da ondo do-miñatzen ebana.

Julio Cejador, Agirre'n liburu esautu ebanian, bere iritxiaren aurka jarri zan. Baña Cejador'ek bere linguistikako estudioa argi-taratu ebanian, Agirre konturatu zan gauza batzuek beragandik plajiautakuak zirana ta «Euskal-Erriak» (Tomo LV, 280 orrialdia, 1906), «Carta abierta a don Julio Cejador y Franca» ta «Examen crítico» argitaratu zituan eta onek biar biok izango dira labor ta argi bere iritxiak argien emon deskuaze-na, ta baña euskeraren alde gartsuen azal-zendana be. Bertan irakortzen dogu: «El vascuence por su inimitable pureza y por su arcaísmo sin par, es entre las lenguas habladas la que mejor y más fiel refleja el espíritu de aquella lengua primitiva en la cual han tenido su origen todas las demás, sin que nadie pueda negarle esta primacía y prioridad que están al alcance de todo el que conoce un poco su admirable estructura gramatical». Ezto gu esango eus-kerak guzti-guztien ama danik, baña bai Agirre ain oker ez-ebillena. Bera ez zan edozein izkuntza kontuetan, erderia ta la-tiña be sakon ezautzen zituan eta ariuen sustraiak be bai. Ta gauzeri beria emon biar ba-jekue baintzat, euskerian eraitzalle bat izan zan eta, gure izkuntza, lordindu baño indartu geiago eñ eban.

Gizontasunian ta euskeltzaletasunian, ba-dogu espillorik naikua, gaurko gizonok, nundik jarraitu biar dogun jakitzeko.

ROMUALDO GALDOS BAERTEL

Eibar'en jaio zan, 1885-II-7'an, baita il be, 1953-XII-27'an.

Loiola'n eta Oña'n osotu zituan bere eiziz-eskolak. Gizon guztiz jakituna izatera eldu zan ta poliglota famatuztat euki eben bere azkenengo urtietan. Ixa bizi guztia Erroma'n eta Oña'n maixu pasau eban. II zanian be Oña'ko retore eula zan. Baña, erritik urrinduaren inoiz be ez zan artu bere biotzeko Eibar'ekin. Bere eriotzan J. de Urko'k esan eban bezela: «El Padre Galdós fué en vida un gran eibarrés, un buen gui-

puzcoano y un ardiente propulsor de la cultura vasca».

Eibar'en alderako kezak erainda estudio jakangarri batzuek ein zituan, geruago «Contribución a una Monografía Histórica de la Villa de Eibar» izenakin, 1929'an, «Revista Internacional de los Estudios Vascos» en argitaratu ebana. Berriz, eriotza aurretuan, Eskola Armeriak argitaratu eban Boletín-Especial'ean (1952'ko urtian); beste biartxo bat, Eibar'ko Kontzeju-etxiena, «La Casa Consistorial de Eibar» (Estudio histórico de vulgarización) izenakin.

Sarasua aiskidiari ein zetsan karta baten zinu: «Esku-zabaltsun bako gaztedia, gaztedi galdu bat da. Karidade bako kristaua, kristau faltsu, ustel eta gaitza. Eibartarren biotzetatik ez alda sekula galduko anaita-suna ta umoria».

Euskeltzaletasunian barriz zer esanik pe ez, Aita Galdós'ek asko maite eban euskera, ez zan alperrik poliglota; ainbeste idioma ikasita gero nai ta nai ez euskera maite izan biar, ba, geien geienetan, bestienak ezautuaz norperana ezautzera eltzen da ta ori berori gertau jakon gure Galdós'i, Amalau idio-man jabe zan eta ala ta juzti be ara zer esan zetsan euskertiagaitik, kartaz, bere la-gun bati: «Es la lengua más maravillosa que conozco». Ta bere euskeltzale indarra, berak eskribidutako liburuetatik ikusi gein-ke onduen: «Dabid'en Abestiak», «Jesus Aurraren lenengo itzaldia», «Mikel Gari-koits», «Ezkontza», ta abar.



«Jesus Aurtxoaren lenengo itzaldia» li-brurutzak ara zelako eskintza dakarren, Gipuzkua'ko euskera ederrez idatzita: «Eus-keldun ama, euskeltzaleak eta beaien seme-alaba guzti-guztiak artu bezate bai artu begi-onez eta biotz-obeiz, egilleak berak biotz eta gogo-onez ez eskeintzen dien euskerazko olerki-txorta au. Au ESKEINTZA au egin nun, Aita Jabier Deun agurgarria, gure euskera maitea ao-biotzetan zerabillela, il zanetik, laureun-garren urtea bete zan, egun zoriotsuan».

Jose Sudepe'ren itzaurria dakar, Galdos eta bere liburu jasoaz, onelako berbekin: «Euskera argi ta garbia, asno goragarriak, eta bertso-berri zoragarriak... Jesus Aurtxoari eta bere Ama Aundiari jarriak; eta obeki esateko, aien bien biotz-barrenetik zure biotz-barrenera erakarriak; eta gero andik, gure mendietako iturriño garbien ur garbia bezelaxe, gogo-goxo zure ao-epañe-tara etorriak; irakurleen adimenak poztu-tzeko, eta pozaren pozez, adimenak argi-tuaz, biotzak garbitzeko, ontzeko eta indar-zeko...». Ori zan izan ba Aita Galdós'en gogo garbia.

Odoler eibartarra izanezkerok, nai ta nai ez, umoria berakin izan biar, umoria ta zuriak sartzeko biurrikeria. Esaten dabe, Euskeltzaindiko buru zan Azkue Erromara juan zanian, eztaikit zelako funziñuak zira-lata, kanonigotik berakorik ez ei eben la-

gutzen Capilla Sixtina'ra sartzen, eta Azkue zana penaz ei zan Capilla Sixtina ikusi barik itxull biarrez; baña, atap-orretan, ara nun tope ein eban gure Galdós'ekin eta zer pasatzen jakon kontau. Gure errikidia ja-kiñaren gañian ipiñi zanian azkar jaso ei zituan anak. Sartu ei zan ate batetik eta andik lasterrera an azaldu ei zan eskuetan kanoniguaren soñekuak zituala, ta, eskerrak berari, Azkue jaunak kanonigu jantzita iku-si ei eban Capilla Sixtina. Anaian ezkalekia izan biar gure Erromaldo.

Emen dozue laboriki Aita Galdos nor zan eta euskera zenbat maite eban. Bere azke-nenguetako esara bat zan: «Amalau izkun-tza ditut eta bat biotzean: EUSKERA».

Iru euskeltzale, iru biargin ta iru gizon, batez be iru gizon; ziran guztia munduan ta Euskalerrian alde emon ebenak. Eztot nai emen euskerian illetak jotetik, ez; euskera biziko da onok irurok jarraitzallak dituen artian. Baña, irakorle: Zeuk zer eten dozu euskerian alde? Euskalduneri euskeraz eingo ba-zendu be ezta gutxi Euskaldun ba-kotxak eskatu kontuak bere kontzientziari, eta eibartarrok begiratu noizik peñean Mogel, Agirre ta Galdos, ainbeste alegindu di-ran bidieri, eibartar zintzuak izaten jarraitu nai ba-dozue, baintzat.

Juan San Martin'ek

Euskal bertsolarien jatorria

(Viene de la pág. 12).

orregaitik dago igartuta Gernika'ko arbola zarra.

Txirrita'k bertsu ori minutu bat bañi le-tago erantzan eban. Ez alda da arritze-koa? Bañi, ori be ezta guztia. Berte batian, adar-ra jote alde, puntua sist-en amaitzen zala ipiñi ei zetsen; euskeraz ez zala errela ber-barik amaitzen ta gure Txirrita jatorra ur-tera barik geldituko zalakuan, baña adar-jotalliak ez-ekin asko norekin zebizen. Au izan zan asiera:

Naiago nuke ba-neuka zuk dezun ainbat bist.

Ta Txirrita'n

erantzuna: Etxean ba-det txakur bat deitzen zaiona List, atiaren gañetik egin ondoren pist, azpiko zulotikan azkar sartzen da txist.

Onomatopeykoekin ez-pazan be, bizkor billau eban Txirrita'k bertsu batetzeko bidia.

Zirikada zelebriekin sartu garanez, ezin dogu amaitu Uztapide'n ateraldi bat aitatu barik. Uztapide'ri be, juraukuak bein, pen-tsau ei eben olako estuasuntxo hat emotia ta ara, ustez, urtera bakua zan galdera bat nola egin zetsen:

Trenak zenbat errubera ditu?

Uztapide'k: Jakin nai dabena'k azpira begitu, ipinitako guztiak izango ditu.

Onok, naikua agiri dira bertsolarien argitasuna ikusteko. Gañera, aintzakotzat artzekua da bertsolariak zenbat ein dabon euskeraren alde. Bertsolariak nun nai aitzen dira, erririk-erri euren izketa zabaldua dabil-lakako, ta Gipuzkua denez bertsolarien abia, beste nun naiko bertsolariak pe, bert-sogiñan aster diranian, Gipuzkua'n egiten dan euskerara jotzen dabe; azkenengo Bil-bo'n ein zan Bizka'ko Txapelketan be ori konturatzen giñan.

Bene-benetan txalogarriak dia gure bertsolari jatorrak.

J. S. M.